**2022KO MARTXOAREN 31N UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO PLENO EL 31 DE MARZO DE 2022**

**LEKUA**: Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA**: Batzar Aretoa.

**EGUNA**: Hogeita hamaika

**HILABETEA**: Martxoa.

**URTEA**: Bi mila eta hogeita bi

**HASIERAKO ORDUA**: Arratsaldeko zazpiak eta laurden

**BATZARRALDIAREN IZAERA**: Ohikoa.

**DEIALDIA**: Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA**: Hamazazpi (17)

**LUGAR:** Ayuntamiento de Beasain

**LOCAL**: Salón de Plenos

**DIA**: Treinta y uno

**MES:** Marzo.

**AÑO**: Dos mil veintidos

**HORA DE COMIENZO**: Diecinueve horas y quince minutos.

**CARACTER DE LA SESION**: Ordinaria.

**CONVOCATORIA**: Primera.

**NUMERO DE MIENBROS QUE LA COMPONEN**: Diecisiete (17)

**UDALBURUA/PRESIDENTA**:
LEIRE ARTOLA UGALDE

**BILDUAK/REUNIDOS**:
EAJ-PNV

- LEIRE ARTOLA UGALDE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA (EAJ-PNV)
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- MIKEL PLAZAOLA OYARZABAL

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBEREZIBAR
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ
- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

**ETORRI GABEAK/AUSENTES**:
FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
AINARA AYESTARAN ALDASORO

**IDAZKARIA/SECRETARIA:**
Itziar Aroztegui Apaolaza

Bileran ere parte hartu du Lurdes Alegria Lasa kontuhartzaileak.

Bapateko itzulpen lanetan Lurdes Auzmendi andrea ibili da Traductores e interpretes S.A. enpresakoa.

**1.- AURREKO AKTA**. 2022-03-03.

Aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da.

**2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:**

a.- KONPROMISUZKO KREDITUEN ERANSKINAREN ALDAKETA. EROSTEKO AUKERARIK GABEKO ERRENTAMENDUAREN BIDEZ BEASAINGO UDALERRIRAKO SARBIDEAK KONTROLATZEKO SEI KAMERA SISTEMA HORNITZEKO. 2022EKBO0042

Ezagutzera eman da Alkatearen proposamena, antolakuntza batzordean aztertutakoa:

*“AURREKARIAK*

*1.- Erosteko aukerarik gabeko errentamenduaren bidez Beasaingo udalerrirako sarbideak kontrolatzeko sei kamera sistema hornitzeko kontratazio prozedura irekiari ekingo zaio, urteko 37.461,60 euroko aurreikuspenarekin, 4 urteroko iraupenez.*

*2.- 2022ko ekitaldiari dagokion kreditua erabilgarri dago eta beharrezkoa da hurrengo ekitaldietarako behar diren kredituak hornitzea, konpromiso-kredituen eranskinean txertatuta.*

*Hau guztia dela eta, Udalbatzari egiten zaio ondorengo PROPOSAMENA*

En la reunión también ha participado la interventora Lurdes Alegría Lasa.

Las labores de traducción simultanea las ha realizado Lurdes Auzmendi de la empresa Traductores e Intérpretes S.A.

**1.- ACTA ANTERIOR**. 03-03-2022

Tras dar cuenta del acta, se aprueba por unanimidad.

**2.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE ANTOLAKUNTZA**:

a.- MODIFICACIÓN DEL ANEXO DE CRÉDITOS DECOMPROMISO. SUMINISTRO, INSTALACIÓN Y MANTENIMIENTO DE SEIS SISTEMAS DE CÁMARAS DE CONTROL DE ACCESOS.

Se da a conocer la propuesta de Alcaldía presentada en la comisión de Organización:

*ANTECEDENTES*

*1.- Se va a iniciar el procedimiento abierto para contratar el Suministro, instalación y mantenimiento de seis sistemas de cámaras de control de accesos por un importe anual de 37.461,60 euros durante 4 anualidades.*

*2.- El crédito correspondiente al ejercicio 2.022 se encuentra disponible y procede dotar, así mismo, los créditos necesarios para los ejercicios posteriores mediante su incorporación al Anexo de Créditos de Compromiso.*

*Es por ello que, se somete la siguiente PROPUESTA a la consideración del Ayuntamiento Pleno:*

*Primero.- Modificar el Anexo de Créditos de*

*Lehenik.- Konpromisuzko Kredituen Eranskina aldatzea, bertan ondorengo konpromisuzko kredituak txertatuz:*

*2.023 urtea:*
*0270.202.133.10.01: 37.461,60 €*

*2.024 urtea:*
*0270.202.133.10.01: 37.461,60 €*

*2.025 urtea:*
*0270.202.133.10.01: 37.461,60 €"*

*Compromiso, incluyendo en el mismo los siguientes créditos de compromiso:*

*Año 2.023:*
*0270.202.133.10.01: 37.461,60 €*

*Año 2.024:*
*0270.202.133.10.01: 37.461,60 €*

*Año 2.025:*
*0270.202.133.10.01: 37.461,60 €"*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, proposamenarekiko adostasuna azaldu da.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

En el turno de intervenciones los asistentes se han mostrado de acuerdo con la propuesta.

En consecuencia, tras realizar la votación se ha aprobado la propuesta por unanimidad.

b.- KREDITU ALDAKETA. 4. KREDITU GEHIGARRIEN ESPEDIENTEA. 2022CRAD0004

B.- MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS. EXPEDIENTE 4 DE CRÉDITOS ADICIONALES.

Alkate andreak ezagutzera eman du zertarako proposatzen diren kreditu gehigarriak eta kopurua zein izango den, hau da:

La Sra. Alcaldesa da a conocer la finalidad y cuantía de los créditos adicionales que se proponen, es decir:

*"GASTUAK ETA KREDITU ALDAKETA EGITEKO PROPOSAMENA*

*Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez, horien gauzatzea ezin baita atzeratu, eta hauek finantzatzeko aurrekontu kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta:*

*PROPUESTA DE GASTOS Y MODIFICACIÓN DE CRÉDITO*

*Dada la urgencia de la ejecución de los gastos enumerados, cuya ejecución no puede demorarse, y la insuficiencia o inexistencia de créditos presupuestarios para financiar los siguientes, se realiza la siguiente propuesta ajustada a la estructura presupuestaria vigente:*

| **Aurrekontuko kontu saila** | **Kontzeptua** | **Kredituak** | | |
|---|---|---|---|---|
| | | **Egungoak** | **Aldaketak** | **Behin betikoak** |
| *0380.601.153.00.01* | *Azp eta Urb: Landa auzoak* | *50.000,00* | *221.000,00* | *271.000,00* |
| *0350.601.153.20.03* | *Porteria Auzoa. Urbaniz (Proiektua)* | *18.000,00* | *612.000,00* | *630.000,00* |
| *0390.211.337.00.02* | *Eraikinen iraupena: Urbieta* | *12.500,00* | *12.000,00* | *24.500,00* |
| *0380.210.153.20.01* | *Mantenua. Baserrietako bideak* | *70.000,00* | *10.000,00* | *80.000,00* |
| *0390.227.172.00.07* | *Landa lurren digitalizazioa* | *0,00* | *18.150,00* | *18.150,00* |
| *0390.227.172.01.07* | *Goierriko energia monitorizacio sistema* | *0,00* | *12.000,00* | *12.000,00* |
| | ***GUZTIRA / TOTAL*** | ***150.500,00*** | ***885.150,00*** | ***1.035.650,00*** |

Aurrekoa ezagutzera eman ondoren, proposamena:

Una vez dado a conocer lo anterior, la propuesta:

*1. Kreditu gehikuntzen bidez 885.150,00 euroko zenbatekoaz eta eranskinean zehazten den moduan finantzatzen den kreditu aldaketa hasiera batean onartzea, eta kapituluka honela laburtzen dena:*

*1. Aprobar inicialmente la modificación de crédito financiada mediante incrementos de crédito por importe de 885.150,00 euros, según se detalla en el anexo, y que se resume por capítulos en los siguientes términos:*

*GASTUEN GEHIKUNTZA*

| *Kap.* | *Izena* | *Euro* |
|---|---|---|
| 2 | *Ondasun arrunten erosketak* | *52.150,00* |
| 6 | *Inbertsio errealak* | *833.000,00* |
| | *GASTUEN GEHIKUNTZA / INCREMENTO GASTO* | *885.150,00* |

*SARRERAK*

| *Kap.* | *Izena* | *Euro* |
|---|---|---|
| *8* | *Finantza aktiboak* | *885.150,00* |
| | *FINANTZIAZIOA* | *885.150,00* |

*2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.*

*2.- Someter el citado acuerdo a información pública para que en el plazo de 15 días puedan formularse las alegaciones que procedan. En caso de no recibirse alegaciones, se entenderá definitivamente aceptada.*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros nos vamos a abstener en ese punto porque el proyecto de urbanización de la porteria hasta ahora no se nos había presentado. Se recogió en el presupuesto con una cantidad irrisoria de 18.000,00 €. Nuestra abstención es una protesta por seguir utilizando esta herramienta porque el cambio es radical. Son 612.000,00 más. Un proyecto de semejante envergadura se podría haber cuantificado de manera más alta.Es un maquillaje de cifras.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): “Gu ere bai abstenitu egingo gara. Pelma xamarrak gara kreditu aldaketekin. Hilabeterokoa bihurtu da eta kopuruak ez dira txantxetakoak. Finantzatu nahi diren gastuak positiboki baloratu arren, erreminta honen erabaliera abusiboa egiten da.”

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): “nosotros también nos abstendremos. Somos un poco pelmas con las modificaciones de crédito. Se dan todos los meses y las cifras no son de broma. Aunque se valoren positivamente los gastos que se pretenden financiar, se hace una práctica abusiva de esta herramienta.”

Alkate andreak (EAJ-PNV): “Nik betikoa. Azkenean guk aurrekontua ikusten dugun

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): “Yo diré lo de siempre. Al final, según vemos el presupuesto,

moduan mekanismo hauek balekoak dira, legeak arautzen ditu eta egingarriak dira. Normalean, guk proiektu bat aurrera eraman nahi dugunean egiten duguna da partida bat ireki, kasu honetan Porteria berrurbanizatzeko 18.000,00 €koa, baina denok banegikun hori ez zela izango. Proiektu anbiziosoak dauzkagu eta horrek eskaten du kreditu aldaketekin hornitu beharrak."

estos mecanismos son válidos, están regulados por la ley y son factibles. Normalmente, lo que hacemos nosotros cuando queremos llevar a cabo un proyecto es abrir una partida, en este caso para la reurbanización de la Portería por 18.000,00 €, pero todos sabíamos que no sería esa cantidad. Tenemos proyectos ambiciosos y eso exige tener que dotarlos con modificacines de crédito."

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Azpimarratze aldera. Garbi dagoena da urtero onartzen den aurrekontua ez dela nahikoa herriko beharrak betetzeko. Horrek zer pentsa eman beharko genioke guztioi, zeren eta aurrekontua lantzen ari garenean arazoren bat badugu. Ez ditugu nahiko sarrerak eta remanentetik tira egin behar dugu eta hori zilegi bada ere, betidanik guk salatu egin dugu. Herritarrekiko gardentasun ariketa modura ere ez da egokiena. Herritarrei urtero aurkezten diogu dirua zertan gastatu behar dugun eta gero hilabetero gauza berriak atxikitzen goaz. Ez dut esango tranpa egiten denetik baina gardentasunari begira zer pentsatua uzten du."

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu): "para subrayarlo. Lo que está claro es que el presupuesto que se aprueba cada año es insuficiente para cubrir las necesidades de la localidad. Esto nos debería dar que pensar, porque cuando estamos trabajando en el presupuesto tenemos algún problema. No tenemos suficientes ingresos y tenemos que tirar del remanente y aunque eso sea legítimo, nosotros siempre lo hemos denunciado. Tampoco es lo más adecuado como ejercicio de transparencia con la ciudadanía. Cada año presentamos a los ciudadanos en qué vamos a gastar el dinero y luego cada mes vamos añadiendo cosas nuevas. No voy a decir que se hace trampa, pero de cara a la transparencia da mucho que pensar."

Alkate andreak (EAJ-PNV): "Aurrekontuak ez direla nahikoa, postura bat izan daiteke zeren eta nahikoak ez balira ez genuke izango sugun diruzaintza inbertsioei aurre egiteko. Beste gauza bat da askotan eta batipat hirigintzan, aurrekontuak urte batekoak izanik, urte betean proiektua egin, exekutatu eta amaitzea ea ezinezkoa da. Baditugu adibideak hirigintzako proiektuak bi urteetarako aurreikusten direnak. Denetatik dago eta oreka bat bilatu nahian, hau da guk gaur proposatzen dugun formula."

La Sra. Alcaldesa (EAJ-PNV): "que los presupuestos no son suficientes, puede ser una postura, porque si no fueran suficientes no tendríamos para hacer frente a las inversiones. Otra cosa es que muchas veces, y sobre todo en urbanismo, los presupuestos son anuales, hacer el proyecto, ejecutarlo y terminarlo en un año es imposible. Tenemos ejemplos de proyectos urbanísticos que se prevén para dos años. Hay de todo y buscando un equilibrio, esta es la fórmula que proponemos hoy."

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Tras debatir el asunto suficientemente se ha sometido a votación obteniéndose el siguiente resultado:

Aldeko botoak: 8 (EAJ-PNV)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 7 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos Euskal Sozialistak)

Votos a favor: 8 (EAJ-PNV)
Votos en contra: 0
Abstenciones: 7 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos Euskal Sozialistak)

C.- BEASAINGO UDALAREN GIZA BALIABIDEAK. ARRAZIONALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA. 2021PEBO0015

Ezagutzera eman da Antolakuntza Batzordeko ondorengo proposamena:

***"Beasaingo Udalaren Giza Baliabideak Aarrazionalizatzeko Plan Estrategikoa.***

*AURREKINAK*

*Giza Baliabideen Plan Estrategiko bat onartzeko beharra aintzat hartuta, udal-zerbitzuak hobetzeko eta giza baliabideak optimizatzeko eta, aldi berean, langileen plantilla eskakizun berrietara egokitzen saiatzeko.*

*Kontuan hartuta Administrazio Publikoetan, oro har, ezkutuko arazoetako bat plantillen zahartzea dela (datozen urteetan nahitaezko erretiro egoerara modu masiboan pasatzea), neurri gehigarriak hartu behar dira belaunaldi-aldaketa ahalik eta modu arrazionalenean leuntzeko eta aurreratzeko arian-arian, langileek ohiko erretiroa har dezaten.*

*Era berean, neurri horiek tokiko langileek adinagatik duten gaitasun psiko-fisikoen galera progresiboa arintzeko ahalegina dira, eta, aldi berean, neurriak ezartzeak, aurreikuspenen arabera, gastuen I. kapituluko partidak murriztea ekarriko du, langileen antzinatasunagatiko ordainsariei dagokienez.*

*Udaleko plantilaren adina azterketa*

C.- PLAN ESTRATÉGICO PARA LA RACIONALIZACION DE LOS RECURSOS HUMANOS DEL AYUNTAMIENTO DE BEASAIN.

Se ha dado a conocer la propuesta de la comisión de Organización:

***Plan Estratégico para la Racionalizacion de los Recursos Humanos del Ayuntamiento de Beasain***

*ANTECEDENTES*

*Atendiendo a la necesidad de aprobar un Plan Estratégico de Recursos Humanos con el fin de mejorar los servicios municipales y la optimización de los recursos humanos y, a su vez, procurar la adecuación de la plantilla de trabajadores/as a las nuevas exigencias.*

*Teniendo en cuenta que uno de los problemas latentes en las Administraciones Públicas, en general, radica en el envejecimiento de las Plantillas (hasta el punto de que en los próximos años el paso a la situación de jubilación obligatoria ocurrirá de forma masiva), se hace necesario la adopción de medidas adicionales a efectos de suavizar y anticipar progresivamente el cambio generacional de la forma más racional posible, en orden a que se consiga una transferencia del conocimiento atesorado por los empleados/as que se acercan a su edad de jubilación ordinaria.*

*Del mismo modo, estas medidas suponen un intento de paliar la progresiva pérdida de capacidades psicofísicas de los/as empleados/as locales por razón de la edad y, a su vez, la implementación de las medidas supondrá, previsiblemente, la disminución de las partidas del Capítulo I de gastos, en lo que tiene que ver con las retribuciones por antigüedad de los/as empleados/as.*

*Estudio de la edad de la pantilla del Ayuntamiento.*

*Plan honi koadro batzuk eransten zaizkio, udal plantillako batez besteko adina jasotzen dituenak sailen arabera.*

*Lanpostuak guztira: 85*
*Bataz beteko adina: 50*

*1. ANTOLAKUNTZA*
*Lanpostuak guztira: 16*
*Bataz beteko adina: 50*

*1.1. IDAZKARITZA*
*Lanpostuak guztira: 6*
*Bataz beteko adina 54*

*1.2. KONTUHARTZAILETZA*
*Lanpostuak guztira: 6*
*Bataz beteko adina 45*

*1.3. ANTOLAKUNTZA ETA GIZA BALIABIDEAK*

*Lanpostuak guztira: 4*
*Bataz beteko adina 49*

*2. LURRALDEA*
*Lanpostuak guztira: 30*
*Bataz beteko adina 47*

*2.1. HIRIGINTZA ETA ZERBITZUAK*
*Lanpostuak guztira: 14*
*Bataz beteko adina 56*

*2.2. UDALTZAINGOA*
*Lanpostuak guztira: 16*
*Bataz beteko adina 40*

*3. HERRITARRA*
*Lanpostuak guztira: 39*
*Bataz beteko adina 52*

*3.1. GIZARTE ONGIZATEA*

*A éste plan se anexan una serie de cuadros donde se recogen las medias de edad en la plantilla municipal por secciones.*
*Total puestos: 85*
*Media de edad: 50*

*1. ORGANIZACIÓN*
*Total puestos: 16*
*Media de edad: 50*

*1.1. SECRETARÍA*
*Total puestos: 6*
*Media de edad: 54*

*1.2. INTERVENCIÓN*
*Total puestos: 6*
*Media de edad: 45*

*1.3. ORGANIZACIÓN Y RECURSOS HUMANOS*
*Total puestos: 4*
*Media de edad: 49*

*2. TERRITORIO*
*Total puestos: 30*
*Media de edad: 47*

*2.1. URBANISMO Y SERVICIOS*
*Total puestos: 14*
*Media de edad: 56*

*2.2. POLICIA MUNICIPAL*
*Total puestos: 16*
*Media de edad: 40*

*3. CIUDADANÍA*
*Total puestos: 39*
*Media de edad: 52*

*3.1. SERVICIOS SOCIALES*
*Total puestos: 9*

*Lanpostuak guztira: 9*

*Bataz beteko adina 48*

*3.2. KULTURA, EUSKARA ETA MERKATARITZA*

*Lanpostuak guztira: 6*

*Bataz beteko adina 52*

*3.3. MUSIKA ESKOLA*

*Lanpostuak guztira: 16*

*Bataz beteko adina 54*

*3.4. KIROLAK*

*Lanpostuak guztira: 3*

*Bataz beteko adina 56*

*3.5. EUSKALTEGIA*

*Lanpostuak guztira: 5*

*Bataz beteko adina 54*

*Beasaingo Udalak, arazo horren jakitun denez eta plantillaren berritze efizientean duen eraginaz jabetuta, komenigarritzat jotzen du sistema bat ezartzea zerbitzu harremana aldez aurretik eta borondatez amaitzea sustatzeko, plantilla gaztetzea ahalbidetuko duena eta interes publikoko helburutzat hartzen da hori, argudiatutakoaren arabera.*

*Helburu orokor hori kontuan hartuta, Giza Baliabideen Plan Estrategiko honen helburu espezifikoa enplegatu publikoen erretiro mailakatua da eta horretarako, neurri asistentzial gisa, kalte ordaina edo diru-konpentsazioa ematea erabaki da, plan honetan jasotzen den zerbitzu-harremana aldez aurretik amaitzeko edozein modalitate baliatzen duten enplegatu publikoek jasan ditzaketen kalte ekonomikoei aurre egiteko, baldin eta legez ezarritako koefiziente murriztaileak aplikatu behar zaizkienean.*

*Kasu horietan, desberdintasun egoera sortzen da enplegatu horientzat, plan honetan zerbitzu*

*Media de edad: 48*

*3.2. CULTURA, EUSKERA Y COMERCIO*

*Total puestos: 6*

*Media de edad: 52*

*3.3. MUSIKA ESKOLA*

*Total puestos: 16*

*Media de edad: 54*

*3.4. DEPORTES*

*Total puestos: 3*

*Media de edad: 56*

*3.5. EUSKALTEGIA*

*Total puestos: 5*

*Media de edad: 54*

*El Ayuntamiento de Beasain, consciente de esta problemática y su repercusión sobre la renovación eficiente de la Plantilla, considera conveniente establecer un sistema para promover la finalización anticipada y voluntaria de la relación de servicios, que permita el rejuvenecimiento de la Plantilla, considerándose éste un fin de interés público, en base a lo argumentado.*

*Teniendo en cuenta este objetivo general, se presenta este Plan Estratégico de RRHH que persigue como objetivo específico el retiro escalonado de los empleados/as públicos/as, para lo cual se arbitra, como medida asistencial, una indemnización o compensación dineraria al menoscabo económico que puedan sufrir los empleados/as públicos que se acojan a cualquiera de las modalidades de finalización anticipada de la relación de servicios que se contemplen en el presente plan, cuando con motivo de la aplicación de los coeficientes reductores (legalmente establecidos) vean mermadas sus*

*harremana aldez aurretik amaitzeko aurreikusten den edozein modalitateri borondatez heltzen ez zaienekiko (beraz, erretiro-pentsioetan ez dute kalterik jasango), bai eta, nahitaezko erretiro-adinarekin alderatuta ohiko erretiro-adina borondatez aurreratu arren, borondatezko erretiro-adina aurreratzen ez duten langileentzat ere, pentsioetan azken kasu horren adibide ekonomikoa da. Beraz, pentsioan jasaten den kalte ekonomikoagatiko diruzko konpentsazio edo kalte ordain hori pizgarri gisa ezartzen da, hori jasaten duten langileek plan honetan zerbitzu-harremana aldez aurretik amaitzeko aurreikusten diren modalitateetako edozeinetara atxiki daitezen.*

*pensiones de jubilación. En estos supuestos se genera una situación de desigualdad para estos empleados, con respecto a los que no se acojan a cualquiera de las modalidades de finalización anticipada de la relación de servicios que se contemplen en el presente plan de manera voluntaria (que por tanto no sufrirán menoscabo en sus pensiones de jubilación) y también con respecto de aquellos que, a pesar de adelantar voluntariamente su edad ordinaria de jubilación con respecto a la edad de jubilación forzosa, no sufren ese menoscabo económico en sus pensiones (este último es el caso, por ejemplo, del adelanto voluntario de la edad ordinaria de jubilación para algunos colectivos de empleados públicos, para los que esta posibilidad ésta normativamente establecida, sin consecuencias económicas para sus pensiones de jubilación). Esta compensación dineraria o indemnización por el menoscabo económico que se sufra en la pensión, se establece, por tanto, como incentivo en orden a que los empleados que lo sufran opten por acogerse a cualquiera de las modalidades de finalización anticipada de la relación de servicios que se contemplen en el presente plan.*

*OINARRI JURIDIKOAK*

*Akordio honen zuzenbideko oinarria erreforma-neurriei buruzko abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen hogeita batgarren xedapen gehigarria da. Honela dio hitzez hitz:*

*«Las Comunidades Autónomas y las Corporaciones Locales, de acuerdo con su capacidad de autoorganización, podrán adoptar, además de Planes de Empleo, <u>otros sistemas de racionalización de los recursos humanos, mediante programas adaptados a sus especificidades,</u> que podrán incluir todas o algunas de las medidas mencionadas en los*

*FUNDAMENTOS JURIDICOS*

*El presente acuerdo tiene su fundamento de Derecho en la Disposición Adicional Vigésimo Primera de la Ley 30/1984, de 2 de agosto, de Medidas para la reforma cuyo texto es del siguiente tenor literal:*

*«Las Comunidades Autónomas y las Corporaciones Locales, de acuerdo con su capacidad de autoorganización, podrán adoptar, además de Planes de Empleo, otros sistemas de racionalización de los recursos humanos, mediante programas adaptados a sus especificidades, que podrán incluir todas o algunas de las medidas mencionadas en los*

*apartados 2 y 3 del artículo 18 de la presente Ley, así como incentivos a la excedencia voluntaria y a la jubilación anticipada.”*

*Era berean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak honako hau ezartzen du 22. artikuluan:*

*1. Euskal administrazio publikoek, beren burua antolatzeko duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatuta, baliabideak arrazionalizatzeko programak onartu ahal izango dituzte.Giza baliabideak beren berezitasunetara egokituta egongo dira eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak izango dira. Langile horiek, batera, dagokien eremuan giza baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzeko garatu beharreko jarduerak jasoko dituzte, aurrekontu-mugen barruan eta beren gobernu-organoek finkatzen dituzten langile-politikako jarraibideekin bat etorriz.*

*2. Giza baliabideak arrazionalizatzeko programek jaso ahal izango dituzte enplegu-planei aplikatu beharreko araudi orokorrean ezarritako neurri guztiak edo batzuk, bai eta borondatezko eszedentziarako eta erretiro aurreraturako pizgarriak eta zerbitzu aktiboari uko egiteko edo bertan behin betiko baja emateko pizgarriak ere.*

*3. Giza baliabideak arrazionalizatzeko programak lege honetan xedatutakoaren eta euskal administrazio publiko bakoitzak ezartzen duen araudiaren arabera arautuko dira. (...)*
*Euskal administrazio publikoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren 41. artikuluak honako hau dio:*

*1. Euskal administrazio publikoek, beren burua*

*apartados 2 y 3 del artículo 18 de la presente Ley, así como incentivos a la excedencia voluntaria y a la jubilación anticipada.”*

*A su vez, la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca establece en su artículo 22:*

*1. Las Administraciones Públicas vascas, de acuerdo con su capacidad de autoorganización y mediando negociación con la representación del personal, podrán adoptar programas de racionalización de los recursos humanos adaptados a sus especificidades y referidos tanto a personal funcionario como laboral, que contendrán de forma conjunta las actuaciones a desarrollar para la óptima utilización de los recursos humanos en el ámbito a que afecten, dentro de los límites presupuestarios y de acuerdo con las directrices de política de personal que fijen sus órganos de gobierno.*

*2. Los programas de racionalización de recursos humanos podrán incluir todas o alguna de las medidas establecidas en la normativa general de aplicación para los planes de empleo, así como incentivos a la excedencia voluntaria y a la jubilación anticipada e incentivos a la renuncia al servicio activo o baja definitiva en él.*

*3. Los programas de racionalización de los recursos humanos se regirán por lo dispuesto en esta ley y la normativa que cada Administración Pública vasca dicte. (...)*
*El Decreto 190/2004, de 13 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento de provisión de puestos de trabajo del personal funcionario de las Administraciones Públicas Vascas, abunda al respecto en su artículo 41:*

*antolatzeko duten ahalmena baliatuz eta langileen ordezkariekin negoziatuta, giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onartu ahal izango dituzte, beren berezitasunei egokituak eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak, aurrekontu-mugen barruan eta beren gobernu-organoek finkatzen dituzten langile-politikako jarraibideen arabera.*

*1. Las Administraciones Públicas Vascas, en ejercicio de su facultad de autoorganización y mediando negociación con la representación del personal, podrán adoptar programas de racionalización de los recursos humanos adaptados a sus especificidades y referidos tanto a personal funcionario como laboral, dentro de los límites presupuestarios y de acuerdo con las directrices de política de personal que fijen sus órganos de gobierno.*

*2. Zerbitzu publikoa emateko antolamendu administratibo egokia lortzeko, giza baliabide egoki eta ezinbestekoekin, arrazionalizazio-programek batera jasoko dituzte dagokien eremuan giza baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzeko garatu beharreko jarduerak. Jarduera horiek, besteak beste, plantillen dimentsionamenduari eta beharrizanen plangintzari, lanpostuen sailkapenari, eta dagozkion ordainsari-ondorioekin, lanpostuak hautatu eta lanpostuz igotzeko, eta lanpostuak hornitzeko, buruzkoak izan daitezke.*

*2. Con la finalidad de conseguir una organización administrativa idónea para la prestación del servicio público con los recursos humanos adecuados e imprescindibles, los programas de racionalización contendrán de forma conjunta las actuaciones a desarrollar para la óptima utilización de los recursos humanos en el ámbito a que afecten, que podrán referirse o incidir, entre otros aspectos, al dimensionamiento de plantillas y planificación de necesidades, a la clasificación de puestos de trabajo, con los efectos retributivos consiguientes, a la selección y provisión de puestos de trabajo, a la promoción y ascenso del personal y a la formación.*

*Eta 42. Artikuluan, "Hainbat neurri": giza baliabideak arrazionalizatzeko programetan honako neurri hauek guztiak edo batzuk sartu ahal izango dira: (...) i) Borondatezko eszedentziarako eta erretiro aurreraturako pizgarriak, eta zerbitzu aktiboari uko egiteko edo zerbitzu horretan behin betiko baja emateko pizgarriak.*

*Y en su artículo 42, “Diferentes medidas: Los programas de racionalización de recursos humanos podrán incluir todas o alguna de las medidas siguientes: (...) i) Incentivos a la excedencia voluntaria y a la jubilación anticipada e incentivos a la renuncia al servicio activo o baja definitiva en él.*

*Aurrekoa eta funtzionarioentzako beste laguntza-neurri batzuk indartzeko, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 37.1 artikuluak negoziatzeko gai gisa ezartzen ditu gizarte-prestazioak eta klase pasiboetako pentsioak zehazteko irizpide orokorrak eta gizarte-ekintzako irizpide orokorrak (urriaren 30eko 5/2015*

*En refuerzo de lo anterior, y de otras medidas asistenciales para los funcionarios, el artículo 37.1 del Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público (TREBEP) establece como materia susceptible de negociación los criterios generales para la determinación de prestaciones sociales y pensiones de clases pasivas y los criterios generales*

*Legegintzako Errege Dekretuaren g) eta i) apartatuak).*

*"Artículo 37. Materias objeto de negociación.*

*1. Serán objeto de negociación, en su ámbito respectivo y en relación con las competencias de cada Administración Pública y con el alcance que legalmente proceda en cada caso, las materias siguientes:*

*…*

*g) Los criterios generales para la determinación de prestaciones sociales y pensiones de clases pasivas.*

*…*

*i) Los criterios generales de acción social"*

*Beasaingo Udaleko langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioak (Udalhitz 2008-2010), osoko bilkuran onartu zenak eta aurreraeragineko aldian dagoenak, 95. eta 96. artikuluetan erretiro aurreratuagatiko primak arautzen ditu, Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programa baten esparruan:*

*"XI. Kapitulua. BESTE ASISTENTZIA-HOBEKUNTZA BATZUK*

*95. Artikulua. - Borondatezko erretiroa adinagatik Giza baliabideak arrazionalizatzeko programa baten esparruan, borondatezko erretiro-prima bat ezartzen da erakundeko funtzionarioentzat, adinagatik, hurrengo artikuluan azaltzen diren zenbatekoetan, baldin eta:*

*Erretiro hori adina dela eta borondatezko erretiroa hartzeko aurreikusitako adina bete baino gutxienez 3 hilabete lehenago eskatzen denean.*

*Kasuan kasu eska daitekeen aurretiazko izapideari emandako erantzunaren berri izan eta hilabeteko epean eskubide hori baliatzea.*

*de acción social (apartados g) e i) de la Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre)*

*"Artículo 37. Materias objeto de negociación.*

*1. Serán objeto de negociación, en su ámbito respectivo y en relación con las competencias de cada Administración Pública y con el alcance que legalmente proceda en cada caso, las materias siguientes:*

*…*

*g) Los criterios generales para la determinación de prestaciones sociales y pensiones de clases pasivas.*

*…*

*i) Los criterios generales de acción social"*

*El Acuerdo Regulador de las Condiciones de Trabajo del personal del Ayuntamiento de Beasain (Udalhitz 2008-2010), aprobado mediante Acuerdo Pleno y en periodo de ultraactividad, establece en sus artículos 95 y 96 la regulación de las primas de jubilación anticipada, dentro del marco de un Programa de Racionalización de Recursos Humanos:*

*"Capítulo XI. OTRAS MEJORAS ASISTENCIALES*

*Artículo 95- Jubilación voluntaria por edad*
*Con el objetivo y en el marco de un programa de racionalización de recursos humanos, se establece para el personal funcionario de la Institución una prima de jubilación voluntaria por edad, en las cuantías que figuran en el artículo siguiente, siempre que:*

*La petición de dicha jubilación se realice con al menos 3 meses de antelación a la fecha de cumplimiento de la edad prevista para la jubilación voluntaria por edad.*

*Que se ejerza dicho derecho en el plazo de 1 mes a partir de conocerse la contestación del trámite previo que en su caso sea exigible.*

*Nolanahi ere, ondorio ekonomikoek adinagatik borondatez erretiratzeko adina betetzen den egunetik aurrera izango dituzte ondorioak.*

*En todo caso, los efectos económicos surtirán siempre sobre la fecha de cumplimiento de la edad de jubilación voluntaria por edad.*

*Kapitulu honen ondorioetarako, hileko soldata bat ukitutako pertsonaren urteko ordainsari finkoaren 1/14 izango da.*

*A los efectos de este Capítulo se entenderá que una mensualidad equivale a 1/14 de la retribución fija anual de la persona afectada.*

*Hilerokoen kopurua zehazteko, 1. paragrafoan adierazitako baldintzaren bat betetzen ez duten funtzionarioei nahitaezko erretirorako urtebete gutxiago falta zaiela joko da, salbu eta, aldez aurretik egin beharreko izapidea eginda ere, adina betetzen duten egunean erretiroa har badezakete.*

*A los efectos de determinar el número de mensualidades, se considerará que al personal funcionario que no cumpla alguna de las condiciones indicadas en el apartado 1 les falta un año menos para su jubilación forzosa, 0a menos que a pesar del trámite previo que en su caso sea exigible pueda jubilarse en la fecha de cumplimiento de edad.*

*Jarraipeneko Batzorde Paritarioak etorkizunerako gomendioak aztertu, ebaluatu eta egingo ditu, artikulu honetan ezarritakoa praktikan jartzearekin lotuta.*

*La Comisión Paritaria de Seguimiento estudiará, evaluará y formulará recomendaciones a futuro relacionadas con la puesta en práctica de lo establecido en el presente artículo.*

*Akordio hau, beraz, langileen ordezkariekin negoziatu ondoren egin da eta plan estrategiko bati ekin nahi dio, udal zerbitzuen eraginkortasun maila handitzeko eta giza baliabideak optimizatzeko, plantilla eman beharreko zerbitzuetara egokitu ahal izateko, gastuari eusteko politika bat kontuan hartuta.*

*El presente acuerdo, que ha sido sometido, por tanto, a previa negociación con la representación del personal, pretende acometer un Plan Estratégico que permita incrementar los niveles de eficiencia en la prestación de los servicios municipales y una optimización de los recursos humanos, de manera que permita la adecuación de la plantilla a los servicios a prestar teniendo en cuenta una política de contención del gasto.*

*Horretarako, Tokiko Korporazioak eta kasu honetan, Beasaingo Udalak, plan batzuk onar ditzake, aurrekontu mugen barruan eta eska daitezkeen baldintzak arautuz, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean ezarritako baldintzak betetzen dituzten udal-enplegatuentzako zerbitzu-harremana aldez aurretik eta borondatez amaitzeko neurriak biltzen dituztenak, koefiziente murriztaileen mendeko borondatezko erretiro aurreratuagatiko pentsioa jasotzeko, akordio hau indarrean dagoen epearen barruan.*

*A tal efecto, la Corporación Local y en concreto en este caso el Ayuntamiento de Beasain, puede aprobar Planes que, dentro de las limitaciones presupuestarias y regulando los requisitos exigibles, incluyan medidas tendentes a la finalización anticipada y voluntaria de la relación de servicios para los/as empleados/as municipales que reúnan los requisitos establecidos en el Régimen General de la Seguridad Social para percibir pensión por jubilación anticipada voluntaria, sujeta a coeficientes*

Aurreko guztia kontuan hartuta, erabaki hau hartu da:

*reductores, dentro del plazo de la vigencia del presente acuerdo.*

*A la vista de todo lo anterior, se adopta el siguiente acuerdo:*

| *Erretiroko ohiko adinari dagokionez, aurrerapeneko hileko kopurua*<br>*Nº de mensualidades de anticipación respecto de la edad ordinaria de jubilación* | *Hileko kalte-ordainen kopurua*<br>*Nº de mensualidades de indemnización* |
|---|---|
| *60 hilerokora arte / Hasta 60 mensualidades* | *21* |
| *48 hilerokora arte / Hasta 48 mensualidades* | *17* |
| *36 hilerokora arte / Hasta 36 mensualidades* | *14* |
| *24 hilerokora arte / Hasta 24 mensualidades* | *11* |
| *12 hilerokora arte / Hasta 12 mensualidades* | *8* |

***3.- GUTXIENEKO ANTZINATASUNA.***

*Plan honetan aurreikusitako zerbitzu-harremana aldez aurretik eta borondatez amaitzeko, Beasaingo Udalean zerbitzu aktiboa eman behar da, gutxienez 5 urtez, gertaera eragilea jazo den dataren aurretik eta gutxienez, 10 urtez, azken 15 urteetan.*

***3.- ANTIGÜEDAD MÍNIMA.***

*A los efectos de la finalización anticipada y voluntaria de la relación de servicios prevista en el presente plan, se requiere la prestación de servicio activo en el Ayuntamiento de Beasain durante un período de tiempo mínimo de 5 años inmediatamente anterior a la fecha en la que se produzca el hecho causante, así como una prestación efectiva mínima de 10 años en los últimos 15 años.*

***4.- ERRETIRO-PIZGARRIAK JASOTZEKO EZINBESTEKO BALDINTZAK:***

*Langileak egiaztatu behar du erretiro-pentsioaren zenbatekoa murriztuko zaiola, nahitaezko erretiroa hartzeko adin arruntean erretiratuz gero jasoko lukeen pentsioari dagokionez eta adin arrunt hori baino lehenago erretiratuz gero jasoko lukeenari dagokionez.*

*Ordaindutako beste edozein jarduerari uko egitea; horretarako, Gizarte Segurantzari eta/edo Ogasunari buruzko lan egoerari buruzko txostenak eskatu ahal izango zaizkio, nahitaez. Aipatutako informazioa aurkezteko betebeharra betetzen ez bada, kalte*

***4.- CONDICIONES INDISPENSABLES PARA PERCIBIR LOS INCENTIVOS DE JUBILACIÓN:***

*Que el/la empleado/a acredite que sufrirá una reducción en el importe de su pensión de jubilación, con respecto del importe de la pensión que percibiría en caso de jubilarse a la edad ordinaria de jubilación forzosa, y como consecuencia de su jubilación a una edad anticipada con respecto a esa edad ordinaria.*

*Que renuncie a realizar cualquier otra actividad remunerada, a cuyos efectos se les podrá solicitar, con la obligación de aportar, informes de su situación laboral respecto a la Seguridad Social y/o Hacienda. En caso de incumplimiento de la obligación de*

*ordainaren onuradunak Udalari itzuli beharko dio informazio horren zenbateko osoa.*

*presentar la citada información, el beneficiario de la indemnización habrá de reingresar al Ayuntamiento el importe íntegro de la misma.*

***5.- BATERAEZINTASUNAK.***

*Plan honetan aurreikusitako kalte ordainak jasotzea bateraezina da Gizarte Segurantzak edo dagokion Mutualitateak edozein ezintasun-modalitate onartzearekin, baldin eta horren ondorioz Beasaingo Udalean langileari zerbitzu harremana aldez aurretik amaitu baino lehen behin betiko baja ematen bazaio. Horren ondorioz, onuradunak jasotako prestazioa itzuli beharko du.*

*Era berean, bateraezinak dira erretiro-adin arrunta aurreratzearekin, baldin eta horrek pentsioan edo beste edozein erretiro-modalitatetan kalterik eragiten ez badu.*

***5.- INCOMPATIBILIDADES.***

*La percepción de las indemnizaciones previstas en el presente plan, es incompatible con el reconocimiento por la Seguridad Social o Mutualidad correspondiente de cualquier modalidad de Incapacidad, cuando de la misma se determine la baja definitiva del empleado en el Ayuntamiento de Beasain, en fecha anterior a la de la finalización anticipada de la relación de servicios. Esta circunstancia comportará la obligación del beneficiario/a del reintegro de la prestación recibida.*

*Asimismo, son incompatibles con el adelanto de edad ordinaria de jubilación que no suponga menoscabo en su pensión o cualesquiera otras modalidades de jubilación.*

***6. INDARREAN JARTZEA.***

*Plana Gipuzkoako Aldizkkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.*

***6. ENTRADA EN VIGOR.***

*El Plan entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.*

***7. INDARRALDIA.***

*Plan hau indarrean egongo da berau aldatzea edo bertan behera uztea erabakitzen den arte. Data horretara arte, langileek kalte-ordaina jaso dezaketen neurriak eskatu ahal izango dituzte.*

*Arrazionalizatzeko Plan honek Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko aurreko Planetan ezarritako erretiro-pizgarriak indargabetzen ditu.*

***7. VIGENCIA.***

*El presente Plan estará vigente hasta que se acuerde su modificación o suspensión, fecha hasta la cual los empleados y las empleadas podrán solicitar las medidas susceptibles de ser indemnizadas.*

*El presente plan deroga incentivos de jubilación establecidos en anteriores Planes de Racionalización de Recursos Humanos.*

***8. ZENBATZEKO ARAUAK.***

*Kalte ordainaren zenbatekoa zehazteko, Beasaingo Udaleko langileen lan baldintzak arautzen dituen Akordioaren (Udalhitz 2008-2010) 95. eta 96.*

***8. REGLAS DE CÓMPUTO.***

*A los efectos de determinar el importe exacto de la indemnización, se estará a lo dispuesto en los artículos 95 y 96, o artículos concordantes, del*

artikuluetan edo horiekin bat datozen artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio, aipatutako artikuluetan aurreikusitakoa une bakoitzean indarrean dagoen nahitaezko erretirorako adin arruntera egokitu ondoren (Gizarte Segurantzaren arloko oinarrizko legeriaren arabera).

Acuerdo Regulador de las Condiciones de Trabajo del personal del Ayuntamiento de Beasain (Udalhitz 2008-2010 funcionarios y laborales), previa adecuación de lo previsto en el articulado referido, a la edad ordinaria de jubilación forzosa vigente en cada momento (conforme a la legislación básica en materia de Seguridad Social).

**9. AURREKONTU-BALIABIDEAK.**

Plan hau indarrean dagoen bitartean, urte bakoitzeko aurrekontu orokorrak, hasieran, edo dagozkion aurrekontu-aldaketen bidez, aurrekontua gauzatzeak dakartzan betebeharrei erantzuteko aurrekontu-zuzkidurak jasoko ditu. Aurrekontu-zuzkidura horiek dagozkien aurrekontu partidetan gauzatuko dira.

I. kapituluko aurrekontu-zuzkiduren soberakinak, beharrezkoa izanez gero, Planean araututako neurriak finantzatzeko erabili ahal izango dira, kredituak horretarako bideratutako partidara transferituz.

**9. DISPONIBILIDADES PRESUPUESTARIAS.**

El Presupuesto General de cada año contemplará inicialmente o a través de las oportunas modificaciones presupuestarias, durante los ejercicios presupuestarios de vigencia del presente Plan, las dotaciones presupuestarias destinadas a satisfacer las obligaciones derivadas de su ejecución. Dichas dotaciones presupuestarias se materializarán en las correspondientes partidas presupuestarias.
Los sobrantes de las dotaciones presupuestarias del Capítulo I, en caso necesario, podrán ser destinados a la financiación de las medidas reguladas por el Plan mediante la transferencia de los créditos a la partida destinada a tal efecto.

**10. – PLANAREN MUGAK ETA PLANTILLEN ETA LANPOSTUEN ZERRENDAREN DOIKUNTZAK.**

Planari lotutako diruz lagundutako jarduketen guztizko kopurua mugatuta egongo da, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean plana gauzatzeko aplika daitezkeen aurrekontu-baliabideen arabera.

Erretiro aurreratuen eraginpeko lanpostuei eta langileen plazei esleitutako funtzioak aztertu egingo dira, hala badagokio, beste lanpostu eta plaza batzuen funtzioak berregituratzeko.
Neurri horiek hartzeko, akordio honetako xedapenak bete beharko dira. Zinpeko aitorpena edo eskatutako txostenak aurkezteko betebeharra bete ezean, kalte

**10. LIMITACIONES DEL PLAN Y AJUSTES DE PLANTILLAS Y RPT.**

El número total de las actuaciones indemnizadas sujetas al Plan, estará limitado por las disponibilidades presupuestarias aplicables a la ejecución del Plan durante cada ejercicio presupuestario.

Las funciones asignadas a los puestos de trabajo y las plazas del personal afectado por las jubilaciones anticipadas serán objeto de análisis con el fin de reestructurar, en su caso, funciones de otros puestos y plazas.
La concesión de estas medidas quedará sujeta a las disposiciones del presente Acuerdo. En caso de

*ordainaren onuradunak aitorpen horren zenbateko osoa itzuli beharko dio Udalari.*

*incumplimiento de la obligación de presentar la declaración jurada o informes solicitados, el beneficiario de la indemnización habrá de reingresar al Ayuntamiento el importe íntegro de la misma.*

*Era berean, interesdunak erabateko baliaezintasun iraunkorraren deklarazioa lortzen badu, erretiro aurreratuagatiko baja edo erabateko baliaezintasun iraunkorraren aitorpenaren data bereko edo lehenagoko ondorioekin, Beasaingo Udalari itzuli beharko dio aitortu zaion kalte ordainaren zenbatekoa.*

*Asimismo, en el supuesto de que la persona interesada obtuviese la declaración de hallarse afectada de una Invalidez Permanente Absoluta, con fecha de efectos igual o anterior a la fecha en la que se produce la baja por jubilación anticipada o por el reconocimiento de Invalidez Permanente en grado de Total, estará obligado a devolver al Ayuntamiento de Beasain la cantidad percibida en concepto de indemnización que le haya sido reconocida.*

***11. – AURKEZTU BEHARREKO ESKABIDEAK ETA AGIRIAK.***

***11. SOLICITUDES Y DOCUMENTACIÓN A APORTAR.***

*Giza Baliabideen Plan honetan jasotako neurriei heltzeko eskaerak gertaera eragilearen eguna baino gutxienez hiru hilabete lehenago aurkeztu beharko dira.*

*Plan honetan aurreikusitako zerbitzu-harremana aldez aurretik amaitzeko edozein modalitateren eskabidearekin batera, interesdunak Gizarte Segurantzaren edo dagokion Mutualitatearen agiria aurkeztu beharko du, erretiroa hartzeko duen adina zehazten duena.*

*Era berean, Udalak eskabidea izapidetzeko bidezkotzat jotzen duen beste edozein dokumentazio erreklamatu ahal izango du, eta kotizazio ezari edo pentsioari buruzko Gizarte Segurantzaren txostenak eskatu ahal izango ditu.*

*Las solicitudes para acogerse a las Medidas contempladas en este Plan de Recursos Humanos deberán presentarse con una antelación mínima de tres meses a la fecha del hecho causante.*

*Junto con la solicitud de cualquiera de las modalidades de finalización anticipada de la relación de servicios previstas en el presente plan, la persona interesada deberá aportar documento de la Seguridad Social o Mutualidad correspondiente, en el que se especifique su edad a efectos de jubilación.*

*Asimismo, el Ayuntamiento, podrá reclamar cualquier otra documentación que considere procedente para la tramitación de la solicitud, y podrá requerir informes de Seguridad Social sobre no cotización o pensión.*

*Antolakuntza Batzordeak 2022ko martxoaren 24ean egindako saioan, Osoko Bilkurara ondorengoa luzatzeko akordioa hartzen du,*

*La Comisión de Organización en reunión celebrada en fecha 24 de marzo de 2022, acuerda someter a la consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente,*

*Akordio Proposamena*

*Propuesta de acuerdo*

***Lehenengoa.-*** *Beasaingo Udaleko Giza Baliabide Arrazionalizazio Plana onartu.*

***Bigarrena****.- GAO argitaratu zabalkunde osoa izan dezan."*

***Primero.-*** *Aprobar el Plan de Racionalización de Recursos Humanos del Ayuntamiento de Beasain.*

***Segundo.-*** *Proceder a su publicación en el BOG para su general conocimiento."*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

En el turno de intervenciones los asistentes exponen las siguientes opiniones:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): "No tenemos nada que añadir. Ya se dice que se mejora respecto de lo regulado en el Udalhitz y además el comité de empresa ha dado su visto bueno".

Hasier Agirre Elkoroberezibar jaunak (Beasaingo EH Bildu): "Bai guri ere positiboa iruditzen zaigu, alde batetik negoziatua eta adostua izan delako langile batzordearekin eta bestetik eduki aldetik aurrera pausoak daudelako. Hala ere esan batzordean ere aipatu genuela ondo iruditzen zaigula arrazionalizazio plana baina datozen bi urteetan burutu beharreko estabilizaio planak abagune bat sortuko duela legegintzaldi hasieratik guk somati ditugun lanpostu gabeziak betetzeko. Behitzat azterketa bat egin eta gabeziak dauden tokian noal berregiratu daitezken, herritarrei zerbitzu hobe bat emateko helburuarekin. Beraz bi aukera izango ditugu eta gure aldetik eskua luzatzen dugu, zeren eta askotan legeak eragotzi digunak plan hauek beste aukera bat ematen dute eta aprobetxatu egin beharko genituzke, lanketa serio bat egiteko, elkarlanean."

